



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko abenduaren 10a

46. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Nafarroako sinboloei buruzko Foru Lege proposamena. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituenak. Aurkeztutako zuzenketak (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, UAGNk, EHNEk edo UCAN-Nafarroako Nekazaritzako Kooperatiben Batasunak eskulan-premiei dagokienez egin dituzten eskariei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzan PROA-Antibiotikoen Erabilera Optimizatzeko Programari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroaren zor publikoaren baldintzak hobetzeko negoziazioari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Untxiaren Mahai Teknikoari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Hondakinei buruzko Foru Legea indarrean sartzeari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, bertan nor bizi den faltsutzen duten pisuak egotea ekiditeko Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, azaroaren 28ko 109/2017 Foru Dekretuari buruzko epaien ondorengo foru aginduaren edukia zehazteko eta onesteko prozesua zein egoeratan dagoen jakitekoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Klimari buruzko Goi-bileran lortutako akordioek Nafarroan izanen duten eraginari buruzkoa. Javier Lecunberri Urabayen jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, hezkuntza afektibo-sexuala unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako curriculumean, ikastetxearen hezkuntza-proiektuetan eta eskola-jardunean sartuta egon dadin ezarriko diren ekintza normatibo-
ei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (11. or.).
- Galdera, ikastetxe plural, inklusibo eta sozializatzaileak sustatuko dituen eskolatzeko prozedura bat zehazte-
ko ezarriko diren neurriei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (11. or.).
- Galdera, garapen jasangarriaren bidean aurrerabidea egiteko eta klima aldatetari aurre egiteko lehentasu-
nei eta ekintza nagusiei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, 2018ko PISAren emaitzen balorazioari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du
(13. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak foru parlamentari karguari uko egitea (14. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- Proposamena, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzekoa (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako sinboloei buruzko Foru Lege proposamena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako sinboloei buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2019ko abenduaren 17ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena

2019ko irailaren 4ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/PRO-00012).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituenak.**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituen Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proposamen hori 2019ko irailaren 20ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA**BILDU****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

«1. artikulua. Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 193. artikuluko 2. apartatuaren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

“2. Udal-hauteskundeetan, hauteskunde-gastuen muga izanen da alderdi, federazio, koalizio edo elkarte bakoitzak bere hautagaitzak aurkeztu dituen barrutietako zuzenbideko populazioei dagokien biztanle-muga bider 0,11 euro egitetik ateratzen dena. Barruti bakar batean aurkeztu diren alderdien edo hauteskunde-elkarteen kasuan, aurreko paragrafoan adierazitako hauteskunde-gastuen muga ezin izanen da 2.500 euro baino gutxiagokoa izan. Baldin eta alderdi edo elkarte horiek Estatuaren diru-laguntzak jasotzeko exigitutako baldintzetara iristen badira, hauteskunde-gastuaren muga ezin izanen da izan diruz lagundu daitekeen zenbatekoa baino txikiagoa.

Probintzia bakoitzeko, hauteskundeetan gutxienez ere hartako udalen 100eko 50ean aurkeztu direnek beste 150.301,11 euro gastatzen ahal izanen dituzte baldintza hori betetzen duten probintzietako bakoitzeko”».

Zioak: lege-proposamenaren xedea da hautesle-elkarteeekin eta, kasua denean, toki mailako alderdi politikoeekin atzemandako arazoak zuzentzea baina ez, ordea, probintzia edo estatu mailako alderdien egoera aldatzea.

2. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

1. artikulua –Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 193. artikuluko 2. apartatuari dagokion aldatzeko zuzenketa. Testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

“2. Udal-hauteskundeetan, hauteskunde-gastuen muga izanen da alderdi, federazio, koalizio edo elkarte bakoitzak bere hautagaitzak aurkeztu dituen barrutietako zuzenbideko populazioei dagokien biztanle-muga bider 0,11 euro egitetik ateratzen dena, 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, eta bider 0,22 euro, 20.000 biztanletik beherako udalerrietan.

Probintzia bakoitzeko, hauteskundeetan gutxienez ere hartako udalen 100eko 25ean aurkeztu direnek beste 150.301,11 euro gastatzen ahal izanen dituzte baldintza hori betetzen duten probintzietako bakoitzeko”.

3. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

2. artikulua 3. apartatua –Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua hirugarren apartatuaren b) letrari dagokiona– aldatzeko zuzenketa. Testua honako hau izanen da hemen-dik aurrera:

“b) 17. artikulua hirugarren apartatuaren b) letran aurreikusitako arau-haustearen kasuan, egindako gastu-gaindikinaren halako bitik halako bostera bitarteko zenbatekoa duen zehapena”.

4. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

Zioen azalpeneko hirugarren paragrafoaren zati bat aldatzea proposatzen da. Testua honela geldituko litzateke:

“Horren egungo testuan, % 10 baino gehiago-ko gaindikinak gutxienez ere 50.000 euroko zeha-pena ekar dezake. Egungo araubideak dakarren egoera zuzentzeko, beharrezkoa izanen litzateke bermatzea hauteskunde-gastuaren mugak ahalbi-detu egiten duela gutxieneko hauteskunde-kanpai-na bat egitea”.

F saila:
GALDERAK

Galdera, UAGNk, EHNEk edo UCAN-Nafarroako Nekazaritzako Kooperatiben Batasunak eskulan-premiei dagokienez egin dituzten eskariei buruzkoa.*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, 1 UAGNk, EHNEk edo UCAN-Nafarroako Nekazaritzako Kooperatiben Batasunak eskulan-premiei dagokienez egin dituzten eskariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer eskari aurkeztu zituzten besteak beste UAGNk, EHNEk edo UCAN-Nafarroako Nekazaritzako Kooperatiben Batasunak Gobernuarekin iragan azaroaren 19an izandako bileran eskulan-premiei dagokienez, zeinen ondorioz lantalde tekniko bat sortu baita sektorerako eskulan-beharrizanei erantzuteko?

Iruñean, 2019ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzan PROA-Antibiotikoen Erabilera Optimizatzeko Programari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzan PROA-Antibiotikoen Erabilera Optimizatzeko Programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilari Indurain andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Europar Batasunak bultzatutako ekimena da PROA-Antibiotikoen Erabilera Optimizatzeko Programa, eta PRAN-Antibiotikoen aurreko Erresistentziari aurre egiteko Plan Nazionalan sartzen da. Nafarroan, 2018an hasi zen ezartzen PROA delakoa Oinarrizko Osasun Laguntzan.

PROA-Antibiotikoen Erabilera Optimizatzeko Programa zer emaitza ari da izaten Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzan?

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, Nafarroaren zor publikoaren baldintzak hobetzeko negoziazioari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Nafarroaren zor publikoaren baldintzak hobetzeko negoziazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Departamentuak zer emaitza lortu du Nafarroako zor publikoaren baldintzak hobetzeko negoziazioari dagokionez banku-entitateekin izandako negoziazioarekin?

Iruñean, 2019ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, Nafarroako Untxiaren Mahai Teknikoari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Untxiaren Mahai Teknikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ezagutu ditugun azken berrien arabera, untxiak eta basurdeak kalte handiak eragiten ari dira bereziki Erriberan; hori dela-eta, Gobernuari galdetzen diogu ea zertan den Nafarroako Parlamentuak mozio batean aho batez onetsitako Nafarroako Untxiaren Mahai Teknikoa, ea zer ondorio atera ziren mahai horretan eta ea beharrezkoa den mahaia berpiztea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Nafarroako Hondakinei buruzko Foru Legea indarrean sartzeari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Hondakinei buruzko Foru Legea indarrean sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer jarduketa abiarazi du laster indarrean sartuko den Nafarroako Hondakinei buruzko Foru Legeak Nafarroako merkataritzan eragin dezakeen egoerari aurre egiteko?

Iruñean, 2019ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, bertan nor bizi den faltsutzen duten pisuak egotea ekiditeko Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztutako galdera, bertan nor bizi den faltsutzen duten pisuak egotea ekiditeko Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak honako galdera hau aurkeztu du, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu zure departamentuaren bidez, ekidite aldera bertan nor bizi den faltsutzen duten pisuak egotea edo bertan bizi diren pertsonen kopuru egiaz hain handia izaki pisuaren osasungarritasuna arriskuan jar dezaketen pisuak izatea?

Iruñean, 2019ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, azaroaren 28ko 109/2017 Foru Dekretuari buruzko epaien ondorengo foru aginduaren edukia zehazteko eta onesteko prozesua zein egoeratan dagoen jakitekoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, azaroaren 28ko 109/2017 Foru Dekretuari buruzko epaien ondorengo foru aginduaren edukia zehazteko eta onesteko prozesua zein egoeratan dagoen jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren bozeramaile denak, Legebil-

tzarraren Araudiari jarraikiz, ondoko ahozko galdera egin nahi du Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duen azaroaren 28ko 109/2017 Foru Dekretuaren inguruko epaiak ezagututa, nafar gobernuak helegiterik ez jartzea erabaki zuen. Hortaz, azaroaren 12tik aurrera aipatutako epaiak irmoak dira. Gobernuak berak iragarri zuen azaroaren 12rako agindu foral bat onartu eta indarrean egonen zela, eta orduz geroztik ez dugu horren berririk izan.

• Zertan dago agindu foral horren edukia zehaztearen eta horren onarpenaren inguruko prozesua?

Iruñean, 2019ko abenduaren 2an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Klimari buruzko Goi-bileran lortutako akordioek Nafarroan izanen duten eraginari buruzkoa.

JAVIER LECUNBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Lecunberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera, Klimari buruzko Goi-bileran lortutako akordioek Nafarroan izanen duten eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayenek,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Ingurumeneko kontseilariak Madrilen klimari buruz egin den goi-bileran parte hartu du Nafarroako Gobernuaren izenean. Epe motzean Nafarroa jasangarriago bat lortze aldera, Foru Gobernuak hainbat konpromiso hartu ditu; esaterako, klima aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko lege bat eta ingurumenean eragina duten jarduerak arautzeko foru lege bat taxutzea eta Nafarroako Uraren 2030 Esparru Estrategia garatzea.

Nafarroan zer eragin izanen dituzte Klimari buruzko Goi-bileran hartutako erabakiek?

Iruñean, 2019ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

Galdera, hezkuntza afektibo-sexuala unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako curriculumean, ikastetxearen hezkuntza-proiektuetan eta eskola-jardunean sartuta egon dadin ezarriko diren ekintza normatiboei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, hezkuntza afektibo-sexuala unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako curriculumean, ikastetxearen hezkuntza-proiektuetan eta eskola-jardunean sartuta egon dadin ezarriko diren ekintza normatiboei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballerok,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, hurrengo abenduaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko 103/2016 Foru Dekretuak 7. artikuluan ezartzen du sexu- eta ugalketa-hezkuntzako zer helburu/eduki jaso behar diren Nafarroako hezkuntza-sistemako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako curriculumean.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak zer ekintza normatibo ezarriko du hezkuntza afektibo-sexuala 2018-2019 ikasturtean sartuta egon dadin unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako curriculumean, ikastetxearen hezkuntza-proiektuetan eta eskola-jardunean, 103/2016 Foru Dekretuaren 7. artikulua agindu modura ezartzen duen bezala?

Iruñean, 2019ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, ikastetxe plural, inklusibo eta sozializatzaileak sustatuko dituen eskolatzeko-prozedura bat zehazteko ezarriko diren neurriei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ikastetxe plural, inklusibo eta sozializatzaileak sustatuko dituen eskolatzeko-

prozedura bat zehazteko ezarriko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Eskolatzeari buruzko araudian 2007tik egindako aldaketek eta aplikazioak ekarri dute ikasleak zenbait irizpideren arabera banatzea ikastetxeetan (jatorria, erlijioa, familien maila sozioekonomikoa, gaitasuna...). Irizpide horiek Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 84., 86. eta 87. artikuluetan ezarritakoaren aurka doaz.

Eragin-eremuak aldatu ostean, ikastetxeetako matrikula-eskabideak antolatzeko irizpide lehentziak zaharkiturik gelditu ziren; adibidez, ikasleak

ikastetxetik hurbil bizitzearena. Egoera horrek berekin ekarri du ikasleak autobusetan harat-honat ibiltzea eta ikasleak sailkatzea.

Hezkuntzako kontseilariak orain dela egun batzuk hedabideetan adierazi zuen bere departamentuak eskolatzeko-prozesua aldatzeko asmoa daukala, funts publikoen bidez finantzatzeko ikastetxe guztien artean modu orekatuan banatzeko ikasleak.

Hezkuntza Departamentuak zer neurri ezarriko du ikastetxe plural, inklusibo eta sozializatzailerak sustatuko dituen eskolatzeko-prozedura bat zehazteko, halako moduan non Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta irizpideak beteko diren?

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, garapen jasangarriaren bidean aurrerabidea egiteko eta klima aldaketari aurre egiteko lehentasunei eta ekintza nagusiei buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, garapen jasangarriaren bidean aurrerabidea egiteko eta klima aldaketari aurre egiteko lehentasunei eta ekintza nagusiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñik, Legebil-

tzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak abenduaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Klima aldaketa da, zalantzarik gabe, Nafarroako gizartearen kezka nagusietako bat. Klimari buruzko Goi-bileratik ondorio oso kezkagarriak heldu dira. Gobernu honen konpromisoa izan da beti ingurumena errespetatzea eta politika jasangarriak ezartzea.

Nafarroako Gobernuak zer lehentasun izanen du eta zer ekintza abiaraziko du garapen jasangarriaren bidean aurrerabidea egiteko eta klima aldaketari aurre egiteko?

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, 2018ko PISaren emaitzen balorazioari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2018ko PISaren emaitzen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu 2018ko PISaren emaitzak direla-eta?

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak foru parlamentari karguari uko egitea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 28an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Koldo Martínez Urionabarrenetxea foru parlamentari jaunak aurkezturiko uko-idazkia dela-eta, honako hau ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako idazkia, uko egitekoa foru parlamentari izaerari, zeina lortu

baitzuen apirilaren 1eko 7/2019 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskondeetan (64. zenbakiko NAO, 2019ko apirilaren 2koa), Geroa Bai hautagaitzaren barruan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Proposamena, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamena, Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Juridikoek egina, indarreko Langileen Estatutuaren laugarren xedapen gehigarriarekin eta Legebiltzarreko Erregelamenduari hirugarren xedapen gehigarriarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamena, honekin batera doana, onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proiektua Erregelamendu Batzordera igortzea, honek erabateko legegintza eskumenez onetsi dezan.

3. Aipatu Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamenari zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, abenduaren 16ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.

4. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamen hau Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeari ere helaraztea, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 34. artikuluan xedaturiko ondorioetarako.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Proposamena, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzekoa**ZIOEN AZALPENA**

Legebiltzarreko Langileen Estatutua da antolaketaren eta langileen alorrean autoaraugintza-printzipioa ezartzen eta bermatzen duen oinarriko araua, Parlamentuaren autonomiaren printzipio orokorretik eratorrita. Lege-maila eta -indarra dauzka, eta hala adierazi dute Konstituzio Auzitegiak nahiz Auzitegi Gorenak.

Langileen Estatutuaren aldaketa honen arrazoia da Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C-72/18 aferan emandako 2019ko ekainaren 20ko epaiari araugintzazko exekuzioa eman beharra. Auzitegi horrek jo du langile kontratatuen ordainsan sartu beharrekoak direla gradu- eta antzinasun-osagarriak eta familia-laguntza, epaian adierazitako zertzeladekin. Estatutuak langile kontratatuentzat ordain-kontzeptu horiek jasotzen ez dituen heinean da beharrezkoa estatutua aldatzea.

Langileen Estatutu indardunaren laugarren xedapen gehigarriak ezarritako prozedurari eta Parlamentuko Erregelamenduko hirugarren xedapen gehigarriari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuaren Langileen Estatutua aldatzen da, nondik norako hauekin:

Lehen. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 4.4 artikulua aldatzen da. Honako testu hau izanen du:

“4. Langile kontratatuek jasoko dituzten ordainsariak izanen dira betetzen ari diren lanpostuari dagozkionak. Halaber jasoko dituzte graduari dagokion ordainsaria eta emandako zerbitzuengatik antzinasun-saria, salbu eta beste administrazio publiko batengandik jasotzen badute, bai eta familia-laguntza ere”.

Bigarrena. Testu berria ematen zaio bigarren xedapen gehigarriko 1. zenbakiari. Honela idatzita geldituko da:

“A) Estatutu honek aurreikusten ez duen orotan aplikatuko da, Parlamentuaren araugintza-autonomia errespetatzen duen neurrian, 5/2015 Legegintzako Dekretua, urriaren 30ekoa, zeinaren bidez onesten baita Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testuategia.

B) Orobat aplikatu ahalko dira, behar bezala egokituta, 13/1983 Legegintzako Foru Dekretua, martxoaren 30ekoa, Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileen estatutuari buruzkoa, eta hori aldatzen duten foru legeak, ezertan

galarazi gabe 5, 6 eta 34.2 artikuluetan ezarritako eskumenak.

C) Halaber aplikatuko da, ordezeko bezala, Foru Komunitateko administrazioko funtzionarioen araubideari buruzko araudi indarduna, jarduera parlamentarioarekin bateraezina ez den heinean”.

Hirugarrena. Xedapen gehigarri berri bat eransten da, hamaikagarrena, honako testuarekin:

“Hamaikagarren xedapen gehigarria. Gradu-ordainsaria administrazio araubideko langile kontratatuei ordaintzea.

Nafarroako Parlamentuak ofizioz ordainduko die administrazio araubideko langile kontratatuei gradu-ordainsaria, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera eta 4 urteko atzeraeragineko efektu ekonomikoekin, kasu bakoitzean aitortutako antzintasunaren arabera”.

Laugarrena. Xedapen iragankor bakar berri bat eransten da, honako testuarekin:

“Xedapen iragankor bakarra. Legegintzazko baliozkotzea.

Gradu-aitorpenaren efektuak atzeraeraginez hedatzeak berekin dakar legegintza bidez baliozkotzen direla aitorten hori iraganean Nafarroako Parlamentuko langile kontratatuei ukatu zieten administrazio-ebazpenak, hamaikagarren xedapen gehigarriko zertzelada berberekin”.

Bosgarrena. Azken xedapenetako bigarrena aldatzen da, jarraian adierazten den bezala:

“Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Langileen Estatutuaren aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan hartuko du indarra. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.”